

## HELDUAK MUSEOA BIZI “Hura ikusi, hauxe bizi, hauxe pentsatu”

### A. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

#### Elkarrekin bizitzen ikastea

- Nork bere burua kultura askoren arteko euskal herritartzat hartzea, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberaren berezko eta erreferentziako kulturei, horrela, identitate anizkUNETATIK nortasun propioa eraikitzeko modu inklusiboan, eta erreferentziako esparru bateratu bat eraikitzeko, pertsonen arteko diferentziak errespetatuz eta bizikidetzaz erraztuz.
- Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta gainerako kulturak eta gizarteak ere; haien funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik batik, hiritarren eskubideei eta betebeharreri dagozkienak, haien aurrean kritikoa izateko eta iritzi eta irizpide pertsonalak edukitzeko.

### B. SAN TELMO MUSEOAK IKASLE HELDUEI ESKAINTZEN DIE...

#### Denbora lerroa

#### NORENTZAT: Gizarte eremuko ikasle helduak - Historia

#### HELBURUAK:

- Gizarte-fenomenoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harreman-prozesuak eta -mekanismoak ezagutzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoiak eta gizon-emakumeek berorietan jokatzen duten papera ulertzea, era horretan Historiaren ikuspuntu zabala eta kritikoa edukitzeko.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako gertaera historikoak eta prozesu ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, eta denboran zehar izan duten bilakaeraren ikuspuntu orokor bat gauzatzea.
- Gure gizarteko eta gizadi osoko hizkuntza-, natura-, kultura-, historia-, arte-, musika- eta plastika-ondarea balioestea eta zaintzea, hurrengo belaunaldientzat ere gozamen- eta aisia-iturri izan dadin.
- Artearen, irudien kulturaren eta musikaren bidez ideiak, sentipenak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko dauden aukerak ulertzea, gure historia-ondarea direla konturatzea, eta, horretarako, arte-hizkuntza desberdinen teknikak eta baliabideak ezagutzea eta menderatzea.

#### EDUKI MULTZOA:

##### 7. multzoa. Egungo gizartearen oinarri historikoak.

- Euskal ilustratuei buruz ikertzea.
- Kronologia-ardatz bat egitea eta bertan ipintzea XV., XVI., XVII. eta XVIII. mendeko gertaera nagusiak.
- Laburpen bat egitea industria-iraultzaren ondorioei buruz.
- Antzinako Erregimenaren krisia.
- Mundu modernoaren hasiera: eraldaketak politikan, artean, ekonomian.
- Humanismoa eta Errenazimentua.
- Ilustrazioa. Iraultza liberala. Frantses Iraultza eta Amerikar Konstituzioa: beren eragina Espainian eta Euskal Herrian.
- Iraultza burgesa.
- Industria-iraultza: arrazoiak eta ondorioak. Langile-mugimenduaren jaiotza. Sindikatuak eta alderdi sozialisten jaiotza. Mugimendu sufragista. Sozialismoa Euskal Herrian.
- Nazionalismoak Europan. Euskal nazionalismoaren sorrera.

**IRAUPENA:** 2 orduko jarduera da.

## AZALPENA:

Jarduera honetako museoko bisitaren atalean, XIX. eta XX. mendeetan euskal gizartearen gertatutako aldaketa nagusiak aztertuko ditugu. Garai horretan, gaur egungo gizartearen osaera ulertzeko gako nagusiak aurkituko ditugu. Tailer gelan, ikasleei denbora eta espazioa batzen dituen lerro batean, hainbat gertaera historiko kokatzeko eskaera egingo diegu. Honela, modu grafiko batean, momentu berean baina leku desberdinetan gertatutakoa ikusi ahal izango dute.

## Historiaren artea

### NORENTZAT: Gizarte eremuko ikasle helduak - Artea

#### HELBURUAK:

- 1) Gizarte-fenomenoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harreman-prozesuak eta -mekanismoak ezagutzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoiak eta gizon-emakumeek berorietan jokatzen duten papera ulertzea, era horretan Historiaren ikuspuntu zabala eta kritikoa edukitzeko.
- 2) Euskal Herriko, Espainiako eta Europako gertaera historikoak eta prozesu ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, eta denboran zehar izan duten bilakaeraren ikuspuntu orokor bat gauzatzea.
- 3) Gure gizarteko eta gizadi osoko hizkuntza-, natura-, kultura-, historia-, arte-, musika- eta plastika-ondarea balioestea eta zaintzea, hurrengo belaunaldientzat ere gozamen- eta aisia-iturri izan dadin.
- 4) Artearen, irudien kulturaren eta musikaren bidez ideiak, sentipenak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko dauden aukerak ulertzea, gure historia-ondarea direla konturatzea, eta, horretarako, arte-hizkuntza desberdinen teknikak eta baliabideak ezagutzea eta menderatzea.

#### EDUKI MULTZOA:

##### 13. multzoa. Arte-hezkuntza.

- Museoak, arte-aretoak, erakusketak, kontzertuak, filmak eta abar bisitatzea.
- Argazkilaritza, collagea, komikia eta kartelaren bidez irudiak sortzea eta manipulatzeko.
- Arte-adierazpen desberdinekin esperimentatuz sentimenduak eta gustu estetikoak adieraztea.
- Plastikako, ikusizko eta entzunezko erreferenteak ulertzea, jasotzea eta interpretatzea.
- Arte-, plastika-, ikusizko eta entzunezko lanak egitea, adieraztea eta sortzea.
- Musika, arkitektura, pintura eta eskultura: arte-adierazpenak eta beren bilakaera historian zehar.
- Egungo argazkilaritza, zinema eta diseinua.

#### IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

#### AZALPENA:

Arte Ederretako bildumako bisita gidatua XV. mendetik XIX. mendera bitarteko ibilbide kronologikoa egiten da. Hartara, artearen historian funtsezko garrantzia izan zuten egileak ikusiko ditugu (Greco, Tintoretto, Ribera, Rubens, Beruete, Fortuny, Madrazo edo Miró) baina estilo artistikoen historian zehar izan duten bilakaera ezagutzeko aukera ere izanik. Eta tailer moduan, collage teknika erabiliz ikasleek artearen garai desberdinak irudikatuko dituzte.

## C. ETA IBILBIDE TEMATIKO MODUAN...

- **Bertakoa eta unibertsala**  
Gainbegiratu mundu garaikideari, erakustareto iraunkorretan barrena. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa.
- **Zatoz zuzana**  
San Telmo Museoa ezagutzeko ibilbide orokorra. Gaur egungo ikuspegi berritik begiratutako objektu historikoak gure iragana eta gure oraina ulertzeko gako batzuk eskainiko ditugu.
- **Artea agerian**  
Teknologia berrien bitartez museoko hainbat artelanen gakoak topatuko ditugu. Gaur egungo teknologiek artea eta historia ezagutzeko aukera zabala eskaintzen dute.
- **San Telmoko arkitekturak**  
San Telmo Museoa izan duen azkeneko zabalkuntzatik eratorritako ibilbide honetan eraikinari erreparatzen zaio batez ere.